

1. GOIERRIKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK DESKRIBATZEA

1.1. JARDUN EREMUA ETA DENBORA ERAGINA (Ikus 0 planoa)

Goierriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek berariaz horretarako mugatutako eremu osoa izango da, eta bertara atxikitako hogeita bi udalerrri barne hartzen ditu (Legorreta, Itsasondo, Arama, Alzaga, Gaintza, Zaldibia, Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun, Olaberria, Idiazabal, Segura, Zerain, Mutiloa, Zegama Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi), bai eta Gipuzkoa-Araba partzuergo orokorrekoak (Aizkorri) eta Enirio-Aralar Mankomunitatekoak ere.

359,20 Km²-ko azalera betetzen du eta 2006. urtean 66.000 biztanle inguru zituen.

Plan honek iraupen mugagabea izango du, nahiz eta berorren programazioa denboraren arabera izan eta berrikusteko eta aldatzeko aukera izan.

Hala ere, planak proiektzio demografikoak eta lurzoru-beharraren proiektzioak (bizitegi zein ekonomia-jardueretarako lurzorua barne hartuta) egin ditu eta lurralde-eremua mugatu du, 16 urtera begira.

1.2. LZParen HELBURUAK:

Lurraldearen zatiko plan edo LZPa honek Goierriko eremu funtzionala antolatzea du xede, maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoaren (LAL), 12. artikuluko 1. puntuan ezarritako zehaztapenak garatuz, baita eremu horretan aplikagarri diren Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen (LAA) edukiak ere, aipatutako legean aurreikusitakoaren arabera.

LAAetan antolamendu-eredu orokor bat zehaztu da, ikuspegi sozial, ekonomiko eta ingurumenekoa kontuan hartuta iraunkorragoa izango den lurralde bat lortzeko helburuarekin. Lurraldean eragina duten arloko politikek jarraitu beharko dute eredu hori eta honako printzipio edo irizpide hauek ditu oinarrian:

- Hirien sistema integratua lortzea, hiriburuak nahiz erdi-mailako tamainako hiriguneak eta landaguneak integratuko dituen.
- EAErako proposatutako hirien sistema osatzen duten herriguneen kanpoko eta barneko lotura-aukerak optimizatuko dituen azpiegitura-sistema garatzea.
- Garapen iraunkorraren kontzeptua gogoan hartuta, ingurune fisiko, baliabide eta lurzoru ez-urbanizagarriaren aurrean jokaera berria agertzea.

Adierazitakoa kontuan hartuta, Goierriko eremu funtzionaleko LZParen xede generikoa erreferentzia-marko bat zehaztea da, udal-plangintzak eta arloko politikak koordinatuko eta barne hartuko dituen. Guztiarekin, LAAen helburuak garatuko dira, garapen-plangintzek jarraitu behar dituzten irizpide orokorrak zehaztuko dira eta lurralde-garapenerako estrategia bat definituko da. Estrategia horri esker, prozesuan nahastutako alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta lurraldeari dagozkionak antolatzeko modua ahalbidetzen da, prozesua modu **orekatsuago eta iraunkorrago** batean garatu ahal izateko.

Adierazitakoa kontuan hartuta, Goierriko LZPak jarraian adierazitako printzipio orokorrak ezarri ditu garapen-plangintza egiteko:

- Eskualdeko natur baliabideak eta horien paisaia- eta ingurumen-kalitatea **zaintzea, hobetzea eta balioz hornitzea**, horiek funtsezko aktibo baitira **eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarrirako**.
- EAEko hirien sistemarekiko **koherentea, orekatua eta integratua** den asentamendu-sistema bat lortzea, udalerriek betetzen dituzten funtzio desberdinen **osagarritasuna** eta hiri-esparruaren eta landa-esparruaren arteko erlazio mota berria bat oinarrian hartuta. Hartara, **ekonomiaren eta gizartearen** garapena eta **kohesioa** indartuko da eremuko biztanleen artean.
- Azpiegitura-sistema egokia garatzea, eremu funtzionala kanpoko garapen-ardatzetan **integratuko** dela ziurtatzeko, inguruko eremu funtzionalekiko loturak garatzeko eta **egituratzea** indartzeko (ereduko oinarritzko elementuen arteko erlazio funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bitartez), eta zerbitzuen **kalitatea** ziurtatzeko. Izan ere, zerbitzu horien bitartez jartzen da biztanleen eskura komunikazioa eta informazioa, eta **bizi-kalitatea** hobetzeko balio dute, halaber.

Printzipio generiko horiek garatzeko, hainbat irizpide eta helburu zehaztu dira LZPak proposatzen duen jardun-eremu bakoitzerako, eta honakoak dira:

Ingurune fisikoa:

- a.- Eremu funtzionaleko garrantzi handiagoko naturguneen babes eraginkorra bermatzea
- b.- Gaur egun dauden baso autoktonoen masa handiak babestea, horien kalitate ekologikoari eusteko eta, hala badagokio, hobetzeko, horien azalera handitzea ahalbidetuz.
- c.- Fauna eta flora basatiko espezien kontserbazioa laguntzea, dibertsitate genetikoa eta dagokien habitaten babesa bermatuz; arreta berezia jarriko da espezie mehatxatuen gainean.
- d.- Landaredi-estaldurari eutsiko zaiola edo/eta hori hobetu egingo dela bermatzea, materialen desplazamenduak gertatzeko arriskua dagoen zonaldeetan, bertan eragin kaltegarria izan dezaketen jarduerak kokatzea saihestuz.

- e.- Drainatzeko sare naturala babestea, erriberako ekosistemen eta uren kalitatea hobetuz eta/ edo horri eutsiz eta horietan eragiten duten faktoreei (alterazio, isurketa eta abarri) arreta eskainiz.
- f.- Lur azpiko baliabide akuiferoen kalitatea hobetzea eta horiek gehiegi ustiatzea eragozteko, horretarako hiri-isurketak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzakoak eta baso-ustiapenetik sortutakoak kontrolatuz.
- g.- Harrera-ahalmenarekin bateragarri ez diren jarduerak direla eta degradatutako lurzorua leheneratzea sustatzea (utzitako harrobiak eta hondakindegia, meatze-inguruak eta higadura-arriskua duten zonaldeak).
- h.- Multzo paisajistiko baliotsuak eta kultur ondarea babestea.
- i.- Orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobetxatu ez diren baliabide naturalak aktibatzea sustatzea, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.
- j.- Atsegin hartzeko eta turismorako erabilera modu antolatuan sustatzea, ekipamendu ludiko eta kulturalen bidez. Ondare naturalistiko eta kulturean oinarritutako ekipamendu horiek lurraldearen erabilera sustatuko dute.

Azpiegiturak.

- 1.- Goierriko eremu funtzionalaren LZPak ondorengo helburu orokorrak finkatu ditu bide-komunikazio eta garraiorako sistemari dagokionez:
 - Eremu funtzionala kanpoko ardatzetan integratzea, hiriburuen euskal sistemarekin, inguruko eremu funtzionalak burutzekin eta indartzen ari diren produkzio-espazioekin dituen loturak indartuz.
 - Burutzen, hiri-inguruen eta landa-inguruen arteko artikulazioa eta elkarreragina sustatzea.
 - Gaur egungo garraio- eta komunikazio-sistema hobetzea, ondorengo irizpideak kontuan hartuta:
 - Administrazioek, garraio-politika komun bati jarraituz, modu koordinatuan egitea plangintza eta antolamendua.
 - Intermodalitatea oinarrian duen garraio-politika bat garatzea.

- Garraio publikoari lehentasuna ematea; horretarako:
 - Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetuko dira.
 - Trena merkantzien garraiorako sustatuko da.
- Garraiobide ez-motorizatuak eta/edo ingurumena gutxiago irauten duten garraiobideak sustatzea.
- Automobil pribatuaren erabilera mugatzea.

2.- 1. puntuari adierazitako helburu orokorren baitan, ondoren adierazitakoak izango dira esku hartzeko irizpideak:

- Errepide-sistemako elementuen arteko artikulazioa hobetzea. Horretarako, Kanpoko Sarbide Sarearen eta hiri-sarearen arteko erlazioa hobetuko da, batez ere Beasain, Ordizia eta Lazkao elkartzeko diren ardatzean edo gunean eta Ezkion aurreikusitako geltokiaren inguruan.
- Errepide-sareen funtzio aniztasuna sustatzea, batez ere Tokiko Iresgarritasun Sare Nagusian. Horrela, hiri-sistemak erlazionatzeko eta egituratzeko dagokion funtzioa indartuko da, eta dagokion sektorean trafiko-bide hutsaren kontzepzioa gaitu, batez ere hiri-zeharbideetan.
- Sarearen funtzionaltasun integrala osatzea, sistemarako halabeharrezkoak diren zerbitzuen bitartez, hala nola autobus-geltokiak, truke-zentroak eta garraiorako ekipamenduak.
- Kasu kasuko azterketak egin eta, horiek kontuan hartuta, azpiegitura-ezarpenak zentzuz kokatzeko, lurraldeko zerbitzuak integratzeko eta optimizatzeko estrategiak jarraituko dira, ubideak, sareak eta trazadurak metatuko dira, afektazioen ekonomia jarraituko da eta diseinu kualifikatuak eta ingurunera egokituak egingo dira.

3.- Goierriko eremu funtzionaleko LKP honek bere egin ditu eta lurralde-ereduan bertan txertatu ditu administrazioaren sailek hornidura, saneamendu, hondakin solidoen tratamendu, uholdeen prebentzio eta energia eta telekomunikazioen azpiegituren inguruan egindako plan eta proiektuak.

Asentamendu-sistema

- 1.- Lehendik zeuden bi hiri-sistemen eredu integrala indartzea. Bi sistema horiek, batetik, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi multzoan eta, bestetik, Beasain-Ordizia-Lazkao multzoan oinarrituta antolatzen dira eta maila txikiagoko herriguneek eta landaguneek osatzen dituzte.
- 2.- Aipatutako herriguneen integrazio funtzionala, elkarren arteko osagarritasunak lagunduz eta Urola Garaia – Urola Behera dikotomia gaindituz.
- 3.- Burutza-hiriak indartzea eta dagokien maila areagotzea, herriguneak ondo integratuz eta lortu nahi den hiri-kategoriaren araberrako elementuen eta funtzioen zuzkidura eginez.
- 4.- Hiri-kalitatea hobetzea, beharrezkotzat jotzen diren eragiketen bidez, hala nola degradatuta edo zaharkituta dauden esparruak aldatzeko edo leheneratzeko eragiketak, hiri-multzoak eta herrigune historikoak babesteko eta birgaitzeko eragiketak eta berrekipamendu-eragiketak; era berean, eremu funtzionaleko biztanleriaren beharrak eta produkzio-sistema kontuan hartu eta etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaintza egokia egin behar da.
- 5.- Lurralde-desorekak zuzentzea. Horretarako bide izango dira honakoak:
 - a. Bizitegitarako eta izaera estrategikoko ekonomia-jardueretarako garapen berrien ekintza selektiboak, harrera-ahalmen handieneko udalerrietan, eremu asetuak birkualifikazio, berrekipamendu eta hobekuntzarako jarduerekin, bertako tentsioak arintzeko eta herriguneen arteko integrazioa eta osagarritasuna lortzeko.
 - b. Landa-garapenerako politika, ekonomia-oinarria dibertsifikatua duena eta lehen sektorearen alternatibak, bizitegitarako eskaintza alternatiboa, kultur eta ingurumen-zerbitzuen berrekipamendua eta integrazioa, telekomunikazioen garapena eta garraio publikoaren hobekuntza ahalbidetuko dituenak.

Asentamendu-sistemari dagozkion helburu orokorrez gain, bizitegitarako, ekonomia-jardueretarako eta ekipamendu-sistemarako asentamenduei dagozkienak adierazi dira jarraian:

Bizitegitarako asentamenduak:

- 1.- Beasain, Ordizia, Lazkao, Zumarraga, Urretxu eta Legazpik osatutako burutza-hirien sistemako herriguneetan dentsitate handiko eta eremu degradatuetako ehunak arintzeko eta leheneratzeko jardunak lehenetsi behar dira garapen eta okupazio berrien gainetik. Horretarako bide izango dira birkualifikazioa, berrerabiltzea, hiri-egitura hobetzea eta zaharkitutako espazio horien integrazio morfologiko eta funtzionala.
- 2.- Aurreko atalean aipatutako hiri-ehunak leheneratzeko lehentasunezko eragiketa horiek garapen berriak egiteko eragiketekin osatu eta koordinatu ahal izango dira, horretarako aukerarik bada eta hori egiteari egoki irizten bazaio. Hori Lazkaoren kasuan egingo da bereziki.
- 3.- Zumarraga-Urretxun ez dira hazkunde esanguratsuak proposatuko, bertako dentsitate-maila zein den ikusita.
- 4.- Lazkao, Ormaiztegi, eta Idiazabal udalerriak hazkunde selektibokotzat joko dira, bertako lurraldearen ezaugarriak, harrera-ahalmena eta lurraldea berrorekatzeko estrategia kontuan hartuta, eta horietako garapenak berezko bilakaera demografikoak ondorioztatutakoa gaindituko du.
- 5.- Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, Ataun-San Martin, Segura eta Zegama udalerrietako herriguneetan bertako hazkunde endogenoari aurre egitera bideratuko da lurzoru-politika. Horretarako, herriguneak formalizatu, egituratu eta egonkortuko dira eta horietan erdi-mailako dentsitateko garapen osagarri txikiak integratuko dira.
- 6.- Arama, Alzaga, Gaintza, Ataun-San Gregorio, Olaberria herrigunea, Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsasoko landaguneko herriguneetan eta udalerri horietako landa-auzorik esanguratsuenetan edo beste udalerri batzuetan, bizitegitarako eskaintza alternatiboa sustatuko da, eremu urbanizatuagoetakoa ez bezalakoa. Bertako hazkundeak neurrizkoak izango dira eta, intentsitateak baxuak, bertako azpiegitura-mailarekin edo hiri-mailarekin bat etorriko direnak.

Horien hiri-egitura eta morfologiari eutsiko zaie, bertako hirigintzaren, tipologiaren, arkitekturaren, ingurumenaren eta paisaiaren inguruko balioak zainduko dituzten soluzioen bidez.

- 7.- Dentsitate txikiko bizitegitarako eskaintza, oro har, aurreko atalean aipatutako herriguneetara mugatuko da. Hori dela eta, asentamendu-mota horien eskaintza saihestuko da burutza-hirietako herriguneetan. Horiek noiz edo noiz eta salbuespen gisa bakarrik baimenduko dira, egoerak hala justifikatzen duenean.
- 8.- Dentsitate baxua aipatzean, 2/2006 Legeak, lurzorua eta hirigintza legeak, ezarritako kopuruak eta estandarrak hartuko dira kontuan.
Era berean, kontuan hartuko dira aipatutako legeak herriguneak antolatzeke ezartzen dituen xedapenak, aplika daitezkeen kasuetan.

Ekonomia-jardueren asentamenduak:

- 1.- Ekonomia-jardueretarako lurzorua eskaintza egitea, eskaintza zabala, eskuragarria eta eskualdeak gaur egun zein etorkizunean edukiko duen produkzio-sistemaren beharretara egokitua, funtsezkoa eta ezinbestekoa da enpresa-ekimen endogenoak mantentzeko eta berriak erakartzeko.
- 2.- Industria-jardueren garapena eta, eskuarki, hirugarren sektorekoena eta, bereziki, zerbitzuen sektorekoena bateragarri egitea, azken horien proportzioa areagotuz eta xede horretarako egokiak diren espazioak hautatuz.
- 3.- Orain arte eraiki eta kalifikatutako eremu gehienei eutsiko zaie. Horretan salbuespen izango dira hiri-birkualifikaziorako behar direnak, birmoldaketa estrategikoetarako beharrezko direnak eta puntualak eta tamaina txikikoak direnak, nabarmen badira antolamendu osoaren kalterako.
- 4.- Oro har, lurralde-ereduaren ondorio diren asentamenduak bertan bizi den biztanleriaren eta bertako enpleguen arteko oreka erlatibora bideratuko dira, eskualdearen edo azpieskualdearen maila erreferentzia hartuta..
- 5.- Ekonomia-jarduerak ezartzeko eragiketak, gainera, ondorengo irizpideei jarraiki burutuko dira:
 - a) Asentamenduen garapena lurraldearen egitura fisikoa eta harrera-ahalmena aintzat hartuta egingo da.
Irizpide hori jarraituko da, batez ere, ekonomia-jardueretarako eremuak udalerrien lotura funtzionala egiteko funtsezkoak direnean, nagusiki Beasain-Zumarraga korridorean.

- b) Eremu berriak aukeratzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: lurraldearen egitura, komunikazio eta garraiorako oinarritzko sareekiko eta oinarritzko azpiegiturekiko harremanak, esparruaren harrera-ahalmena, gainerako asentamenduekiko erlazioa, espazioaren asetasun-maila eta ingurumen-inpaktuak. Gainera, lehentasun, tolerantzia eta bazterketako espazioak adieraziko dira, aipatutako horien arabera.
- c) Asentamendu berrietan tamaina handi eta ertaineko eragiketa gutxiago egiteari emango zaio lehentasuna esku-hartze txiki baina ugarien gainetik, batez ere horiek dimentsio txikiagoko lur alubialetan eragiten badute, begi-bistako eragina izaten baitute ingurune naturalean.
- d) Haranen hondoetako zerrenda estu eta lauetaoesku-hartzeak deskalifikatu behar dira, batez ere erriberakoak, horietan esku-hartzeak galarazi behar dira. Gisa horretan hiri-garapeneko baztertze-zerrenda izango dira.
- e) Izaera poluitzailea edo narriatzailea duten erabilera bereziak, besteak beste, aire zabaleko txatar-biltegiak, automobilen kanposantuak, hormigoizko plantak eta antzeko eragineko beste hainbat, ezinbestean arautu beharko dira udal - plangintzetan, arloko araudiari jarraiki eta akuiferoen, ingurune naturalaren eta hiri- eta landa-paisaiaren babesaren inguruko irizpideak aintzat hartuz.
- f) Ekonomia-jardueren asentamenduak (horiek industrialak nahiz beste motaren batekoak izan) harremanetarako egituraren integratutako proiektuen arabera egingo dira. Gainera, errodadura, aparkaleku, oinezko eta txirrindularientzako ibilbide, espaloi, zuhaitzi eta ibaien ertzetako espazio funtzionalak definituko dira eta zaindu egingo dira diseinuaren eta egindako eraikuntza eta urbanizazioen kalitatea, baita horiek ingurumenarekin duten erlazioa ere.
- g) Ekonomia-jardueretarako plangintza-eremuek eta -unitateek gutxieneko dimentsionatzea izan beharko dute eta, ahal dela, lehendik dauden garapenen jarraian kokatuko dira, gisa horretan hazkunde sakabanatua saihestuko baita.
- h) Irizpide orokor gisa, garapen iraunkorraren eta lurzoruen erabilera hobearen printzipioak aintzat hartuta, plangintzak eraikuntza-betetzea aurreikusiko du, betiere LZP hau garatzeko antolamenduen xede zehatzekin bateragarria bada edo produkzio-jarduerak edo beste jarduera batzuk beste mota bateko eraikuntzak eskatzen ez badituzte.

Ekipamenduak eta espazio libreak:

- 1.- Goierriko eremu funtzionalean hiri-izaerako udalaz gaindiko ekipamenduetara bideratutako lurzorua antolamendua ondorengo irizpideak aintzat hartuta gauzatuko da:
 - a) Lurralde-ereduak proposatutako udalaz gaindiko intereseko ekipamenduak aipatutako ereduaren egitura orokorrean txertatzen dira eta ekipamendu horien garapena, sistema hierarkizatu bat sortzera, hirien osagarri izango dena eta landaguneak aktiboki integratuko dituen, bideratuko da.
 - b) Berrekipamenduek eremua egituratzeko bete dezaketen funtzio garrantzitsua kontuan hartuta, berrekipamenduekin batera hiri-birkualifikazioko, burutza-hirien maila sustatzeko eta hirien sistemako herriguneeen integrazio formal eta funtzionala bideratzeko eragiketak egingo dira .
 - c) Landa-eremuetako eta ingurune naturaleko ekipamenduak lehen horiek garatzeko estrategia orokorraren baitan txertatuko dira.
 - d) Arrazionaltasuna, hierarkizazioa, osagarritasuna eta, kasu jakin batzuetan, zentraltasun eta kualifikazio espaziala bezalako irizpideak izango dira gailen ekipamenduen sistema antolatze, hiri-ingurunean nahiz ingurune naturalean.
 - e). Esku-hartzeek ikuspegi globala izango dute, LZP honetako lurralde-ereduan proposatutako bestelako proposamenen eragin sinergikoak sortzeko helburuarekin.
- 2.- Instalazio berriak hirugarren sektoreko gabeziak konpontzera bideratu behar dute. Bide horretatik, funtsezko izango dira ondoko ekipamenduak: negozio-zentroak, enpresetarako zerbitzuak, merkataritzako ekipamenduak, turismo eta aisiako ekipamenduak, gizarte-ekipamendua eta ekipamendu balioanitzak, kualitatiboki eraiki nahi den hiriaren mailarekin bat datozenak.

1.3. AUKERAK SORTZEA, DESKRIBATZEA ETA AZTERTZEA.

Goierriko LZPak eremu funtzionala antolatzeko irizpideak, helburuak eta konponbide orokorrak barne hartzen ditu.

Helburu orokorretan zehaztu dira antolamendu-zehaztapenen xedeak, noranzkoak eta jarraibide nagusiak. Arlo eta maila desberdinak barne hartzen ditu, lurraldeko informazioa aztertu eta bere diagnostikoa egin ondoren bereizitakoak funtsean; era berean, administrazioak edo gizarte-eragile jakin batzuk aldeztu aurretik finkatutako helburu sozioekonomikoak, ingurumenekoak, lurralde-mailakoak eta antolamenduak barne hartzen ditu.

Irizpide orokorrak planaren oinarritzko erreferentzia dira eta honako elementu hauen arabera zehaztu dira: eskuarki onartutako gizarte eta diziplinako printzipioak eta balioak (horien artean daude Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren ingurumen-xedeak eta – helburuak), maila altuagoko lege-zehaztapenak eta, batez ere, lurraldeko informazioetatik lortutako datuak. Informazio horrek lurralde-antolamenduan nahastutako esparru desberdinetako arloko azterketak barne hartzen ditu.

Adierazitako definizioak kontuan hartuta, irizpideak eta helburu orokorrak, antolamendu-erreferentzia orokorrak direnak, dagokien maila generikoarekin lotutako berezitasun batzuk dituzte, eta aukera desberdinak egin badaitezke ere, berezitasun horiek mugatu egiten dituzte nabarmenki.

Bestalde, konponbide orokorrak, lurralde-ereduan laburbildu direnak, irizpideak eta helburuek ezarritako mugaketa eta noranzkoak kontuan hartuta prestatu dira eta lurraldeko esparru desberdinei dagozkien funtzioak egituratzen eta definitzen dituzte oro har; eta ezarritako helburuak lortzeko ekintzarik egokienak egituratzen eta definitzen dituzte halaber, batez ere duten izaera egituratzaileagatik ekintza estrategikotzat jotzen direnak.

Goierriko LZP honetan erabilitako informazioa aztertu eta gero, lurralde-eredua osatzeko giltzarriak eta erreferentziak zehaztu ahal izan dira eta, era berean, LZP honen antolamenduaren irizpideak eta helburu orokorrak, bai eta konponbide orokorrak ere, hobeto zehaztu dira. Aurreragoko epigrafeetan adierazten den moduan, giltzarri eta erreferentzien bitartez garatzen dira lortu nahi diren helburuak eta udal-plangintzak eta arloko politikak

garatzeko jarraituko diren irizpideak, LAAetan adierazitakoa kontuan hartuta beti. Gainera, ezarritako printzipio, irizpide edo helburuekin kontraesanean egon daitezkeen beste aukera batzuk, edo eredia nabarmenki aldatuko duten beste aukera batzuk, baztertuta geratzen dira.

Ereduan barne hartutako konponbide orokorreki dagokienez, izaera orokorreko aukera bakar batean bildu dira guztiak. Horrela, LAAk eremu funtzionalerako proposatutako lurralde-ereduaren estrategia eta beste oinarritzko alderdi batzuk, esku hartzeko politikak artikulatzen eta garatzen dituztenak, integratzen dira aukera bakar batean.

Ezin dugu ahaztu Goierriko Lurraldearen Zatiko Planak LAAk eremu funtzionalerako proposatzen duen lurralde-eredua identifikatzea eta garatzea bilatzen duela (ikus 02.1 planoak) eta, ondorioz, ez dela ordezkotako lurralde-eredu gehiago aurkezten. Gainera, eragile publikoekin eta gizarte-eragileekin hitz egiten hasi ginenetik jarraitutako metodologia-prozesua amaitu ondoren (hamarkada luze batez luzatu da), eta hainbat esparrutan ordezkotako konponbideak batera alderatu eta aztertu ondoren, nahikoa adostasun lortu da sustatu nahi den lurralde-ereduaren inguruan. Adostutako lurralde-eredu hori eta “zero aukera” barne hartu dira dokumentuan, hortaz, ez du zentzu handirik barne hartu ez diren ordezkotako aukerak aztertzen hasteak.

Azterketa horren arabera, behin oinarritzko irizpideak eta helburuak eta esku hartzeko estrategia eta konponbide orokorrak definitu eta onartu ondoren, plana garatu ahala eta indarrean dagoen bitartean azaleratuko dira aukera desberdinak, hala nola:

- Programa eta behar berriak sortu eta integratu beharko dira.
- LZP honetan barne hartutako plan bereziak, konpatibilizazio-planak, eta abar garatuko dira.
- Proposamenak zehaztuko dira eta udalek ordezkotako kokapenak aukeratuko dituzte, LZPak baimentzen badu betiere.

Konponbide orokorrak zehazteko fase honetan, helburu berberak lortzera zuzendutako aukera desberdinak proposatzea komeni da; betiere, aukera berri horiek behar den bezala ebaluatu ahal izango direla ziurtatuko da.

1.4. PROPOSATUTAKO LURRALDE EREDUAREN OINARRIZKO ALDERDIAK

Eremu funtzionaleko LZPa antolamendu-eredu batek eta berau garatzen duen lanerako programa batek osatzen dute funtsean.

Eredua antolatzeko oinarritzko hiru kontzeptu definitu dira. Kontzeptu horiek bat datoz dagozkien espazio-esparru eta –kanalekin (ingurune fisikoa, asentamenduak eta azpiegiturak; harremanetarako sistema da funtsezko euskarria azken horien kasuan). Era berean, aipatutako esparru bakoitzerako **berariaz landu diren esku hartzeko zenbait estrategia definitu dira**. Eredua osatzeko, eremu, esparru eta elementu jakin batzuetan eragiteko jarduerak identifikatu eta proposatu dira. Eskualdearen lurralde-egituratzea gehiago errazteko, horiek ekintza estrategiko gisa antolatu dira. Jardun-programak, bestalde, beharrezkotzat jotzen ditu eragiketa estrategiko horiek guztiak eta horien erritmoa programatzen du, proposatutako ekintzen artean sinergia ahalik eta handiena lortzera begira.

Eredua garatu ahal izateko, LZPak, lurralde-politikaren inguruan lehen aipatutako printzipioak eta LAAetan adierazitako irizpideak eta artezpideak bere egin, eta strategi orokor batzuk proposatzen ditu. Estrategia horien oinarrian daude lurralde-mailako indartzea, berroreka eta osagarritasuna, bai eta antzemandako beharrei erantzuteko tamaina egokia izango duen lurzorua eskaintza egitea ere; **ingurumenari dagokionez, lurzorua erabilera babestea, kontserbatzea, hobetzea** eta arrazoizkoagoa izatea bilatzen dute aipatu estrategiek eta, xede horretarako, lurraldeari ematen zaion erabilera lurraldeak duen edukierara egokituko da ahal den gehien, **baliabideen kontsumo neurrigabea mugatuko da, lurzorua erabilera eraginkorra egitea ahalbidetuko duten estrategiak, politikak eta ereduak proposatzea, bai eta hiriguneetako ingurumen-kalitatea eta bizi-kalitatea hobetzea ere**.

Ingurune fisikoa. (Ikus 01.1a planoa eta 01.1b planoa)

Ingurune fisikoari dagokionez, lurzoruari ematen zaion erabilera lurraldeak duen edukierara egokitzeko estrategiak lurraldean duen isla da lurralde-ereduak, eta lurzoru ez-urbanizagarria sektore homogeneotan (kategoriatan) bereizteko proposamena egiten du. Sektore homogeneo horiek bereizteko, kontuan hartuko dira lurzorua harrera-ahalmena,

eboluzio-potentzialtasuna eta dituen balioak direla eta berau hobetzeko eta babesteko beharra. Halaber, gaur egun kalifikatuta dauden eremuak eta hiri-garapena izan dezaketen udalaz gaineko eremu nagusiak azpimarratzen ditu, betiere eremu funtzionalaren lurralde-antolamendu integrala egin nahi dela kontuan hartuta.

Aipatutako eremuekin lotuta, lurraldea erabiltzeko araudia eta erabili gabe dauden baliabideak babestu, aktiboki kontserbatu, hobetu, berreskuratu, leheneratu eta horiei balioa emateko neurriak aurkituko ditugu, matrize baten bitartez erlazionatuta.

Ondorengo antolamendu-kategoria orokorrak definitu dira:

- Babes berezia.
- Ingurumena hobetzea.
- Basoak
- Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala.
- Mendietako larreak.
- Lur gaineko uren babesa.

Aipatutako kategorietara gainjarrita hainbat baldintzatzaile zehaztu dira. Jarduera jakin batzuk garatzeko moduak mugatzen dituzte, arriskuaren edo kasu bakoitzaren egoera bereziaren arabera, eta ondoren adierazitako hauek dira:

- Akuiferoen urrakortasuna
- Higa daitezkeen eremuak
- Urpean gera daitezkeen eremuak
- Naturgune babestuak eta Natura 2000 Sarea

LAAen antolamendu-kategoriak eta irizpide horiek Goierriko eremu funtzionalaren lurralde-proposamenera egokitzeke, funtsean, “erabilera-bokazio definitu gabea” kendu da. Irizpide, helburu eta irtenbide orokorren dokumentuan jasotakoaren arabera, eremu funtzionalaren berriazko ezaugarrien ondorioz (lurraldearen %75 baino gehiagok %30eko malda du, eta gainerako %25ean erabileren presioa eta lehia oso handiak dira). Gainera, “Basoa” kategoria bi kategoriatan banatu da: “kontserbaziorako basoa” eta “produkziorako basoa”. Eta “Nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak eta landazabala” kategoriaren barruan nekazaritzarako eta/edo ingurumenerako interesa duten eremuak mugatu dira.

Horrenbestez, aipatutako **kategorizazioa** erreferentzia bikaina da, lurzoru ez urbanizagarriaren erabilerak arautzeko **garapen-plangintza** lehenesten den lurralde-ereduarekin bateragarri egiteko.

Eremu funtzionaleko ingurune fisikoa antolatzeko kontuan hartu behar den bigarren alderdi garrantzitsua, **babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak edo esparruak** aukeratzean datza. Planaren arabera, eremu edo esparru horiek aukeratzeko kontuan hartuko dira bakoitzaren balioak edo narriadura-egoera, edo gainjarritako baldintzatzaile bat egotea.

Garapen-plangintzan barne hartzean izaera loteslea hartzen dute; hala ere, izaera lotesleari kalterik egin gabe, aipatutako ezaugarriak dituzten beste eremu batzuk definitu ahal izango dira edo udal-antolamenduaren eskalatik proposatutako mugak aldatu (zabaldu).

Ondoren ikus daiteke ingurune fisikoa babesteko, hobetzeko eta/edo berreskuratzeko kategorien zerrenda:

Babestu beharreko eremuak.

Ondorengo azpikategoriak definitu dira:

- Natur intereseko eremuak

Kategoria horretan barne hartzen dira EAEko Naturgune Babestuak (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz bereziak), Natura 2000 Sarea, Interes Naturalistikoko Espazioak eta eremu funtzionaleko Hainbat Interesgune.

Honakoa da Goierriko eremu funtzionalari dagokionez azpiegitura horretan barne hartutako eremuen zerrenda:

- Naturgune babestuak: Aralarko parke naturala Aizkorri-Aratz parke naturala
- Natura 2000 Sarea ES2120002 Aizkorri-Aratz, ES2120005 Oria ibaiaren goiko zatia, ES2120011 Aralar.
- Interes naturalistikoko espazioak eta hainbat interesgune Murumendi, Gorostiaga, Aralar-Aizkorri korridorea

- Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak.

Kategoria honen barruan daude Interes geologikoko eremuak eta gunea, interes arkeologikoko guneak eta interes paleontologikoa eta/edo arkeologikoa duten leizeak.

- Interes geologikoko eremuak: Aralar, Aizkorri
- Interes geologikoko guneak: 14 gune dira eta "Gipuzkoako interes geologikoko guneak" (GFA) bilduman barne hartuta daude.
- Monumentu megalitikoak eta leizeak: 42 dolmen, 26 tumulu, 2 harrespil, zista 1 eta 8 monolito eta 27 kobazulo, Gipuzkoako gutun arkeologikoan barne hartua (ikus eranskina)

- Nekazaritza- edo/eta ingurumen-intereseko eremuak.

Kategoria honetan sartu dira **01.1. planoan** Nekazaritza-babeseko eremutzat sailkatu diren eremuak. Hain zuzen ere, lehen sektoreko produktibitateko potentzialtasun handiko eta/edo ingurumen-balio handiko eremuak dira.

- Ondorengoak hain zuzen ere: Segura, Zerain eta Mutiloako ibarrak, Estandako ibarrak Gabirian, Lazkaoko ibarra, Olaberriarantz, Lazkaomendiko muinoak eta mendi-hegalak, Olaberriako eta Idiazabalgo muinoak, Aramako muinoak eta mendi-hegalak, Gaintza eta Loinaz Beasainen.

- Interes hidrologikoko eremuak.

Kategoria honetan sailkatu dira, lur gaineko urei dagokienez, urtegiak, ibai-ibilguak eta babes-lerroak, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean ezarritako adarkatzearen arabera; lur azpiko urei dagokienez, akuiferoen urrakortasunaren inguruan arrisku handia edo oso handia duten eremuak.

Hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak.

Ondorengo hiru azpikategoriak bereizi dira:

- Ekosistemak hobetzeko eremuak

Interes naturaleko eremuen kategorian barne hartu ez diren baso naturalak eta horietan sortzen diren zuhaixka formazioak barne hartzen dira kategoria honetan. Baso naturalek eta zuhaixka-formazioek duten kokapen topografikoa eta potentzialtasuna kontuan hartuta, aurreko kategorian sailkatzen dira batzuetan.

- Baso-kontserbazioko eremuak

Kategoria honetan sartu dira **01.1 planoan**, Ingurune Fisikoaren antolamendua izenekoan, adierazitako eremuak, gaur egun malda handiko, sakonera gutxiko eta/edo higadura jasateko arriskua duten lurzoruetan baso-masa handiak jasaten dituztenak.

- Erabiltzen ez diren meatze, harrobi eta zaborteak.

Halabeharrezkoa da eremu hauen ingurumen-baldintzak leheneratzea.

Eredua etorkizunera egindako proiektio bat dela kontuan hartuta, gaur egun oraindik erabiltzen diren ustiapenak kategoria honetan sailkatzen dira, izan ere, ustiapen-lanekin behin amaitu eta gero, eremu horiek leheneratu behar dira.

Korridore ekologikoen sarea (diseinatzeke)

Korridoreen sare bat sortu nahi da (ibaietakoak, basoetakoa, nekazaritzakoak, eta abar), eremu funtzionaleko interes natural handieneko espazioen artean (Aralar-Aizkorri – Gorostiaga-Murumendi), bai eta inguruko eremu funtzionalen artean ere, hartara, bertako ondare faunistikoa eta floristikoa kontserbatuko dela ziurtatzeko.

Korridoreen sare hori garatzeko, lurralde-mailako konektagarritasuna hobetuko duten jarduerak sustatu behar dira eta bertan egiten diren erabilerak eta jarduerak arautu behar dira, lurraldearen funtzionaltasuna ziurtatzeko.

LZPak egindako aurreikuspenen arabera, korridore ekologikoak definitzeko eta diseinatzeko sektoreko agiriak eta/edo horien garapena erabiliko da.

Ekintza positiboko neurriei dagokienez, ingurune fisikoa kontserbatu, hobetu edo berreskuratzeko dagoeneko aipatu diren ekintzez gain, LZP honetan gai honen inguruko eskumena duten sailei egoki irizten dituzten programa, plan, proiektu eta jardunak garatu eta gauzatzeko proposatzen zaie, esparru arauemailea osatzeko. Lortzen diren emaitzak agiri honen plangintzan eta araudian barne hartuko dira, hala badagokie. Bestiak beste, honakoak kontuan hartuko diren alderdiak:

- **ONDAREA KONTSERBATZEKO ETA INTEGRATZEKO PLANA.** Plan honek barne hartzen ditu EAEko ekosistema bereziak, basoko bizitza eta dibertsitate ekologikoa babesteko, berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduera guztiak, funtsezko ziklo ekologikoak eta kultur ondarearenak.

Besteak beste, ondorengo planak garatu dira banaka zein integratuta:

Baso naturalak kontserbatzeko eta berreskuratzeko plana.

Basoko espezie mehatxatuen plana.

Ondare zientifiko-kulturalaren plana eta Naturako elementu bereziak babesteko plana.

Korridore ekologikoen sarea.

Leku paisajistiko baliotsuak babesteko plana.

Habitatak berreskuratzeko plana.

Hobetu edo berreskuratu beharreko eremuak eta hainbat ingurune degradatu zaharberritzeko plana.

Lehenegoratu paisajistikoko plana.

Azaleko sare hidrologikoa berreskuratzeko plana.

- NATUR BALIABIDEAK ERABILTZEKO PLANA. Natur baliabideen (baliabide hidrikoak, nekazaritzako eta arrantzako jarduerak, basokoak eta bestelakoak) antolamenduarekin eta ustiapenarekin erlazionatutako jarduera guztiak barne hartu dira bertan, bai eta horiek ingurumenean eragiten dituzten inpaktuekin eta arriskuekin erlazionatutakoak ere (lurzoruen higadura eta babesa, uholdeen prebentzioa, eta abar).
- ASKOTARIKO JARDUERAK SUSTATZEKO PLANA. Bertan barne hartu dira eremu funtzionalaren lurralderako landutako hainbat programa osatzeko jarduera guztiak.
- INTERPRETAZIO, IKERKETA ETA ADMINISTRAZIO PLANA, lurraldearen gaineko ingurumen-hezkuntzarekin eta ikerketa zientifikoarekin erlazionatutako jarduerak, eta horiek ezagutzera emateko jarduerak barne hartzen ditu plan honek.

Asentamendu-sistema: (Ikus 01.2 planoan)

- Asentamendu-eredua antolatzeko, udalerrien kategorizazioa hartzen da oinarrian eta esku hartzeko estrategiak finkatzen dira, lurralde-egituran dituzten ezaugarrien eta potentzialtasunen arabera eta betetzen duten funtzioaren arabera. Oro har, horrela osatzen dira:
 - Udalerrien kategorizazioa:

Lurralde-ereduak bereizketa hierarkikoa egiten du asentamendu-sistemari dagokionez, eta, lehenik eta behin, LAAetan zehaztutako hirien sistemaren barruan, herriguneak bereizten ditu, biztanleria-tamainaren arabera, zerbitzuen eskaintzaren arabera eta eskualdeko garrantziaren arabera.
- Betetzearen ezaugarri orokorrak –hiri-eremuak, landaguneetako herriguneak eta hiri-garapenik gabeko guneak bereizi dira-, **01.2 planoan** islatu direnak, eta etorkizuneko garapenak antolatzeko lurralde-irizpideak, ondoren adierazitako prozedurak betez erabakiko dira:
 - Hiri-aldaketa eta –leheneratzea, -babesa eta/edo birgaitzearen xede izango diren espazioak definitzea, horien andeapena eragozteko edo beste erabilera bat emateko berreskuratu ahal izateko.
 - Garapen berrietarako lehentasuna izango duten eremuen kokapena.
 - Hiri-garapenik gabeko korridoreen edo hiri-etenen definizioa.
- Interes komuneko ekipamenduen —hiri-izaerakoen nahiz landaguneetan edo ingurune naturalean daudenen— kokapenaren definizioa.
- Etxebizitza babestuen inguruko lehentasunezko eta jarduera osagarrietarako udalerrien definizioa.
- Eragiketa estrategikoak.
- Beren plangintzak bateragarri bihurtu behar dituzten udalerrien zehaztapena.

Asentamendu-sistemei helduta, proposatutako estrategiak burutzak **sustatzera** bideratutakoak dira, batetik, eta hautemandako **desorekak zuzentzera** bideratutakoak, bestetik.

Planak burutzetarako egindako proposamena gaur egungo bi burutzei eustean eta horiek indartzean datza. Proposamena horien arteko **osagarritasunaren** eta harremanen ikuspegitik sortutakoa da, eta maila handiagoko hiri-euskarri integratua lortzea du xede. Izan ere, gisa horretan, gai izango dira goragoko mailako zuzkidurak hartzeko eta hirugarren sektoreko zerbitzuak eta jarduerak ezartzeko. Bide horretatik elkarrekin izango dira eremu funtzionaleko lurralde osoko buru, ekonomiaren eta kulturaren ikuspegitik zein, berariaz, hiri-ikuspegitik.

Osagarritasunean eta harremanetan funtsatutako eskema orokor horren barruan, Urola Garaiko eremuari dagokionez, Urretxu eta Zumarraga udalerriak integratzeko eta Legazpietik harremanak hobetzeko prozesuarekin jarraitzea proposatzen da.

Bestalde, Beasain-Ordizia-Lazkao multzoa da eremu funtzionaleko maila handieneko eremua. Goierriko garapena indarberritzeko eta ekonomia dibertsifikatzeko, garrantzitsua da hiri-eremu hori sustatzea, Gipuzkoako eremu funtzionaletako burutzetako hirugarren hiriburua izatera iritsi baitaiteke, 25.000 biztanle baino gehiagorekin.

Alabaina, aipatutako helburu hori lortzeko, aurrez lurralde-euskarri integratua sortu behar da, gaur egun hiru udalerri horietako herriguneek osatzen duten konurbaziotik abiatuta. Horretarako, **egitura berritzeko** bi motako eragiketak proposatzen dira:

- Bide-berregituratze orokorra (Beasain-Ordizia-Lazkao ardatza) eta trenbide-trazadura aldatzea Ordiziako Bustuntza auzoaren eta Beasaingo azokaren artean.
- Hiri-ehuna birkualifikatzea N-I errepidearen, Oria ibaiaren eta Senpere inguruaren artean, Beasainen. Horrek batez ere Ordiziako San Bartolome auzoa, gaur egungo errugbi-zelaia eta CAF enpresaren instalaziorik zaharkituenetako batzuk eta gutxiegi erabilitako lurrak hartzen ditu barne.

Ereduak proposatzen duenari jarraiki, **desorekak** zuzentzeko, burutzeekin ondo erlazionatuta dauden eta horiek baino harrera-ahalmen handiagoa duten beste zonalde batzuk sustatu behar dira, bizitegien eta ekonomia-jardueretarako lurzoruen hazkundera erraztuko duten garapen berrien ekintza selektiboen bidez. Ekintza horiekin batera, ordea, birkualifikatzeko, berrekipatzeko eta hobetzeko beste ekintza batzuk gauzatuko dira, eremu funtzionaleko herriguneen arteko integrazio eta osagarritasun handiagoa lortzeko.

Hazkunde selektiboko ekintza horien artean, azpimarratzekoa da Beasain-Zumarraga korridorea eremu funtzionalean ekonomia-jardueretarako lurzoru berriak garatzeko esparru estrategikotzat jotzea, asentamendu-ereduaren konfigurazio orokorrean duen garrantzi berezia eta, bere lotura-funtzioaren bidez, bi burutzen arteko harremanak indartzeko egingo duen ekarpena direla eta.

Berrorekatzeko estrategia horrek, ordea, herrigune hiritarrak ez ezik landaguneak ere hartu behar lituzke bere baitan. Horretarako udalerri horien potentziala aprobetxatuko duten eta lehen sektorearen alternatiba izango den enplegu-eskaintza sortuko duten garapen-prozesu berriak sortzen lagunduko duen politika integral bat jarri behar da abian, Euskal Landarako Plan Estrategikoan oinarritutakoa.

Azpiegitura-sistema:

Harremanetarako sistema funtsezko euskarritzat duten azpiegiturei dagokienez, LZPak argi uzten du garraio-politika egoki bat garatzea funtsezkoa izango dela eskualdeak barruan zein kanpoan erlazionatzeko dituen aukerak optimizatu nahi badira, produkzio-sistemaren lehiakortasuna indartu nahi bada eta herriguneen eta landaguneen artean, eta bertako biztanleen artean, lurralde- eta gizarte-mailako integrazioa eta kohesioa areagotu nahi badira.

Garraiobide ez-motordunak eta garraio publikoa sustatu behar dira, ibilgailu pribatuaren erabilera neurrigabearen aurrean, energiaren kontsumoa eta emisio poluitzaileak murrizteko; ingurumena hobetzeko helburuarekin bat egiteaz gain, lehiakortasun ekonomikoa hobetzeko lagungarria izango da, batez ere auto-pilaketek mehatxatutako espazioetan, eta epe luzera lurraldearen iraunkortasun globala lortzeko funtsezko elementutzat azaltzen zaigu.

Hori dela eta, LZPak **garraio publikoaren** eskaintza indartsu eta kalitatezko bat egiteko apustu garbia egiten du.

Eta garraio publikoko zerbitzu horiek eraginkortasunez antolatu nahi badira, funtsezkoa da **intermodalitate-sistema** baten antzera antolatzea.

Garraio eta telekomunikazioen politikaren integrazioa, berorren izaera publikoa indartzea eta zerbitzua intermodala izatea helburutzat hartuta, planak politika hori gauzatu ahal izateko azpiegitura-euskarria diseinatzeko du.

Horretarako, abian dauden plan eta proiektu garrantzitsuak onartzen dira eta hurbilerraztasun eta lurralde-ereduaren elementuen arteko erlazio handiagoa lortzea helburu duten beste neurri osagarri batzuk proposatzen dira.

Lurralde historikoetako hiriburuekin eta EAEko erdi-mailako tamainako hiriekin lotzea, eremu funtzionalaren lurralde-egituratzea eta hiri-eremuen eta landa-eremuen arteko harremanak hobetzea dira proposamenaren helburu nagusiak. Horiei dagokienez, ondorengo alderdi eta elementuak dira oinarri:

- Euskal hiriburuen sistemarekin, hurbileko eremu funtzionaletako burutzeekin eta inguruko ekonomia-esparrurik dinamikoenekin lotzea.

Bereziki Bilbo-Donostia-Gasteiz, Ebro ardatza (Sakana-Iruñean barrena) eta Donostia-Baiona korridorearekin, garraio-nodoen bidez (horietako batzuk, gainera, ahalmen handikoak dira).

Horrezaz gain, eremu funtzionala mugakideetako burutzeekin lotzea, bereziki Debagoienarekin, Urola-Kostarekin, Debarrenarekin (aurrekoaren bidez) eta Toloserriarekin.

- Eremu funtzionalaren egitura sendotzea, burutzen arteko eta horien eta tokiko guneen arteko harremanak loturen bidez indartuz.

N-I zaharrak eta gaur egungo G-632 errepideak (biak ere aldatu egin dira trafiko-bide soilen ikuspegi sektoriala gainditzeko duen diseinu berri bati jarraiki, inguruko herrigunerik hurbilekoen eta burutzen arteko ibilbide jakin batzuetan) osatzen dute eskualdearen barneko benetako egitura.

Lurraldeko eta tokiko sarbide-sare sekundarioek eta landaguneetarako sarbideek osatzen dute errepide-sarea. Bide horiek, hainbat guneren arteko lotura berrien bidez egoki indartutakoek, aukera eskaintzen dute ereduaren asentamendu-sistema artikulatzeko eta erlazionatzeko.

Sistema ingurune naturaleko landa-bideen eta oinezkoen ibilbideen elkarren hurreneko kapilar-sareen bidez hedatzen denez, bertako puntu guztietarako hurbilerraztasuna eta ereduaren oinarritzko elementuen arteko harremana bermatzen dituen sare eraginkorra sortzen da lurraldean.

Eredua osatzeko sarean integratutako edo inguruan kokatutako beste elementu batzuk ere hartu behar dira aintzat, horiek ere funtsezko baitira garraio eta komunikabideen sistema orokorra ulertzeko.

Autobus-geltokiak, truke-zentroak eta garraiorako ekipamenduak dira, hain zuzen ere, elementu horiek.

Komenigarria da aipatzea azpiegitura horiek, bereziki truke-zentroek, zenbaterainoko garrantzia duten ereduaren, garapen-ereduak osatzeko eta esparru jakin batzuetan zentraltasunak sortzeko eta indartzeko.

Planak truke-zentro horietako esanguratsuenak garraio-zentro integratu gisa sustatzea proposatzen du. Horiek bidaiarentzat nahiz salgaietarako izango lirateke, baina betiere eskualdearen tamainara egokituta.

Amaitzeko, Goierriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten zerbitzuak ziurtatzeko beharrezkoak diren **oinarritzko azpiegiturak** barne hartzen ditu ereduak, eta honakoak alderdi garrantzitsuenak: saneamendua eta ur-hornidura, hondakin solidoak, energia-azpiegiturak (elektrizitatea eta gasa) eta telekomunikazioak.

1.5. ZEHAZTAPENEN LABURPENA, MAILA HIERARKIKO ALTUAGOKO BESTE PLAN BATZUETATIK ONDORIOZTATUTAKO JARRAIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK KONTUAN HARTU, BARNE HARTU ETA GARATZEKO HELBURUAREKIN.

Maiatzaren 31ko 4/90 legeak arautzen du EAEko lurraldearen antolamendua. Lege horretan definitzen dira EAEko lurraldea antolatzeko honako tresna hauek:

- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA).
- Lurraldearen Zatiko Planak (LZP).
- Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

Horrenbestez, ikuspegi arauemailea kontuan hartuta, lurraldea antolatzeko legea bera eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) daude LZParen gainetik hierarkikoki.

LAAetan azaldutako zehaztopen, irizpide eta orientazio orokorrak eta 22. kapituluaren (LAAk aplikatzeko arauak) barne hartutako zehaztopenak, IIBE azterketa honen 2.1 epigrafean islatu ditugunak, alde batera utzita, "Kontzeptuzko oinarriak....." izeneko agiriak, LAAk garatzeko testuinguruan eta LZPak idazteko orientazio gisa prestatutakoak, ondorengoak aipatzen ditu Goierriko eremu funtzionaleko lurralde-eredua osatzeari begira:

".....Goierriko Eremu funtzionalak zeregin bikoitza izango du EAEko etorkizuneko lurralde-egituran. Alde batetik, eremu funtzionalean gehien okupatuta dauden espazioak arintzeko jardunak lehenetsi behar dira. Horrekin batera, ezinbestekoa izango da arintzeko estrategia horrek hutsik utziko dituen hiri-espazioak birkalifikatzeko estrategia gauzatzea. Bestetik, nahitaezkoa da bertako ekonomia dibertsifikatzea, hirugarren sektoreko, bizitegitarako eta turismorako jarduerak, gaur egun arte eremu funtzionalean oso gutxi garatu direnak, sartzearen bidez. Intereseko naturguneek (besteak beste Aralarko Parke Naturalak) funtsezko zeregina izan behar dute dibertsifikatzeko estrategia honetan.

LAAek hiri-berriztatzeko eta Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu hiri-eremuetako ehunen morfologia birmoldatzeko ekimenak egitea proposatzen dute.

Beasain, Ordizia, Zumarraga eta Urretxu udalerrietako hirigintza-politikaren bidez sustatuko da bertako **herriguneak berriztatzea**. Horretarako, ahalegina egin beharko da etorkizuneko bizitegi-hazkundearen zati bat eremu funtzionala honetan proposatutako habitat alternatiboetara bideratzeko eta hiri-industriaren zati bat (batez ere eragin handiena duena

eta aukera potentzialeko kokalekua duena) aurreikuspenen arabera **Zumarraga-Beasain ardatzean garatuko diren kokaleku alternatiboetara lekualdatzeko.**

- Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu udalerrietako plangintzak bateragarri izateko mekanismoak aplikatu beharko dira.
- *Ataun udalerrian Beasain-Ordizia-Lazkaoren habitat alternatiboa sortzea proposatzen da. Ataun hedatzeko ekimen horren hiri-egitura gaur egungo herrigunean eta udalerri horren herrigune nagusiak kokaleku duen haranaren morfologian oinarrituko da. Gainera, Ezkio-Itsaso eta Gabiria udalerrietan ere habitat alternatiboak sortzea ahalbidetuko da, udalerri horietako herriguneen egiturarekin bat etorritik.*
- **Zumarraga-Beasain ardatza ekonomia-jardueretarako eremu gisa garatzea proposatzen da. Horrek aukera eskainiko du eremu funtzionaleko industria-lurzorua eskariari erantzuteko eta udalerriarik kongestionatuenetako hiri-industria lekualdatzeko, baita pixkanaka eremu funtzionalean gehiago integratuko den lan-merkatua osatzeko ere, batez ere Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu udalerrien artean.**
- LAAek ez dute lurraldea egituratzeko ekintzarik proposatzen, eremu funtzional honetako udalerrietako bigarren etxebizitzaren tratamenduari dagokionez. Alabaina, bigarren etxebizitza sustatzea aurreikusi da, Ataun, Segura, Zaldibia eta Zegama udalerriak hartuta oinarri endogenotzat.
- LAAetan eremu funtzionala honetarako proposatutako aisiarako eremuen artean ondorengoak ditugu: , Murumendi, Aralar, Aizkorri eta Udana-Brinkola gaina. Horrezaz gain, Zaldibia, Ataun eta Zegama udalerriak lurralderako sargune gisa egokitzea proposatzen da.
- LAAek ekipamendu-sistema antolatze egindako proposamenei helduz, azpimarratzekoa da eskualdeko zuzkidura-sistemak eremu funtzionala bakoitzeko burutzetan edo azpiburutzetan integratzeko asmoa. Kasu honetan, bada, Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu herriguneetan integratzea.
- LAAek babesteko proposamenak direla eta eremu funtzional honetarako egindako proposamenei begira, berriz, Aralarko Parke Naturala da azpimarragarri.

1.6. INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN AUKEREN JARDUNAK IDENTIFIKATZEA.

(Ikus 01.3 planoa eta 01.4 planoa)

Ingurumen-inpaktua definitzeko, giza jarduerak ingurunean eragiten duen aldaketa dela esaten badugu, eta kontuan hartuta inpaktu positiboa edo negatiboa izan daitekeela, argi dago planeko proposamenetan barne hartutako jardunen artetik edozeinek inpaktua eragiten dezakeela. Zentzu zabalean, jardunez gain, planeko beste elementu batzuk, hala nola helburuek, estrategiek eta jardun-politikek, lurraldeko ingurumena eragin dezakete halaber. Hala ere, aipatutako helburuak edo irizpideak ezartzeko jardunen proiektua lantzean eta gauzatzean gertatzen dira inpaktu horiek gehienetan .

Ingurumena hobetzeko balio duten zenbait jardunek, hala nola ondare eraikia eta hiri eraikia hobetzeko proposamenek, inpaktu positibo zuzena dakarte; galera (balio-galera edo baliabidearena) eta/edo arriskua eta poluzioa eragiten dutenek, berriz, inpaktu negatiboa dute.

Honakoak inpaktuak sor ditzaketen jardun eta zehaztapen garrantzitsuenak:

- Ingurune fisikoa antolatzeke proposamena, honako baliabide hauen bitartez:
 - Lurzoru ez-urbanizagarria kategorizatzea eta bertako jarduerak arautzea.
 - Ingurumena babestu, aktiboki kontserbatu eta hobetzeko ekintza positiboko neurriak eta erabili gabe dauden baliabideei balioa ematea.
- Asentamendu-sistema antolatzeke proposamenak, honako baliabide hauen bitartez:
 - Babes- eta birgaitze-eragiketak.
 - Hiri-aldaketa eta –berrikuntzako eragiketak.
 - Garapen berriak egiteko eragiketak. (bizitegitarakoak zein ekonomia-jardueretarako lurzoruetarako egiten direnak).
 - Berrekipamenduko eragiketak.
- Harremanetarako sistemako eta oinarritzko azpiegituretako jardun-proposamenak.
 - Bide-sarerako proposamenak.
 - Trenbide-sarerako proposamenak.
 - Garraio-sareko beste elementu batzuei dagozkien proposamenak.
 - Oinarritzko zerbitzuei dagozkien proposamenak.
- Lurraldearen kudeaketarekin lotutako proposamenak.

Hain zuzen ere, bizitegitarako hiri-garapenerako lurzoru berriak betetzean, inguruneke faktore bat edo gehiago eragiten dira eskuarki; horrenbestez, faktore horietan aldaketak egiten dira eta, ondorioz, mota desberdineko inpaktu negatiboak gertatzen dira. Jarduera mota, kokapenaren eta inguruaren ezaugarri, eta abarren arabera, inpaktuen eragina larriagotu egin daiteke batzuetan; beste batzuetan, neurri prebentiboen eta zuzentzaileen bitartez, inpaktua mugatzea edo arintzea lor daiteke.

Ingurune fisikoaren ingurumen-faktoreen gaineko inpaktuak eta biztanleriaren beste behar eta eskaera batzuk, herritarrek etxebizitza duina edukitzeko duten eskubidea adibidez, bateragarri egin behar dira. Bi alderdiak modu harmoniatsuan garatu behar dira, nahiz eta ez den beti lortuko. Ezinezkoa denean, iraunkortasunaren printzipioa gogoan hartuta jokatu da baliabideak kontsumitzeko orduan.

Iraunkortasunaren printzipioari helduta, planak barne hartzen dituen zenbait helburu, politika eta irizpide garatu eta betetzeko, hala nola garraio publikoaren eskaintza indartsua eta kalitatezkoa sustatzeko edo kudeaketa egokia eginez oinarritzko zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko, lurzoru erabiltzea beharrezkoa bada ere, xede nagusia da lurzoruaren erabilera eraginkorra egitea eta lurzoruaren kontsumoa mugatzea. Eskaintza eta eskaria bat etortzea eta arrazoizkoak izatea lortu nahi bada, eskualde-mailako kudeaketa indartu eta alokairuko parkea sustatu beharko da, edo arrazoizko hiri-eredu trinkoak proposatu.

1.7. PLANA GAUZATZEKO FASEAK ETA BERAU GARATZEN DUTEN BESTE PROGRAMA BATZUK.

1.7.1. LZP gauzatzeke faseak

LZP gauzatzeke programan adierazi dira ekintzen lehentasuna, gaika, eta horiek garatzeko beharrezkoa den denbora. Zentzu horretan, LALak zehaztutakoari jarraiki, planaren iraupenaldirako (16 urterako) aurreikusitako jardunak lau azpialditan programatu ditugu.

Aipatzekoa litzateke agiri honek, batez ere alderdi teknikoetan oinarritutakoa denak, egiten dituen aurreikuspenetan ez direla kontuan izan aurrekontuen inguruko faktoreak eta beste zenbait alderdi politiko eta ekonomiko, hortaz, zalantzarik gabe, administrazioeko sail eta/edo erakundeen artean hitzarmenak egiteko prozesuak garatu beharko dira, besteak beste, proposatutako ekintzak eragileen artean banatzeko, horien kudeaketa eta plangintzako tresnak testuinguru berri honetara egokitzeko eta, beharrezkoa balitz, lurraldea antolatzeko tresna berriak sortzeko.

1.7.2. LZP garatzeko planak

1. Goierriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plan honetako proposamenak garatzeko, kontuan hartuko da egiturazko udal-plangintza -plan orokorrak, konpatibilizazio-planak- betiere LZPan adierazitakora egokitu ondoren, edo plan bereziak.
2. Beasain-Zumarraga korridorean eta "Beasain-Ordizia-Lazkao" izeneko ardatzean esku hartze estrategikoak burutzeko LZP honetan aurkezten den proposamena garatzeko, kasuan kasuko konpatibilizazio-planak landu behar dira. Bertan, estrategia egokiak zehaztuko dira denboran, eta horien gauzatzea erakutsiko da.
3. Lurraldearen Zatiko Plan honetan barne hartutako aurreikuspenak garatzeko, plan bereziak formulatu eta onartu ahal izango dira, udal-plangintza oraindik egokitu gabe egonik ere. Plan berezi horiekin honako helburu hauek betetzea bilatuko da:

- a) Oinarrizko azpiegiturak, bide- nahiz trenbide-azpiegiturak, garatzea, horiei lotutako elementuak barne: harremanetarako sistemaren ekipamendu berriak, geltokiak, garraio-zentroak eta horien zerbitzu-eremuak, plataforma intermodalak, garraio astuneko gomendatutako aparkalekuak eta salgaien truke-zentroak, betiere lurralde-ereduari jarraiki.
- b) Ur-hornidurarekin, saneamenduarekin, energiaren hornidurarekin eta antzeko beste batzuekin lotura duten oinarrizko azpiegiturak garatzea.
- c) Paisaia, komunikazio-bideak, lurzorua eta ingurune naturala eta landa-ingurunea babestea, horiek kontserbatzeko eta hobetzeko (erabilera-planak, programa integratuak barne hartuz), ingurune fisikorako LZPak ezarritako zehaztapenen arabera.

Goierriko eremu funtzionalaren LZPko aurreikuspenak garatzeko ezinbestekoa izango da plangintza koordinatuak egitea, eta, horretarako, konpatilizazio-planak landuko dira ondoren adierazitako udalerrietan:

- Zumarraga eta Urretxuko udal-planak.
- Zumarraga, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegi, batez ere Beasain-Zumarraga korridorearen antolamendua garatzeko.

Beasain, Ordizia eta Lazkao, batez ere Beasain-Ordizia-Lazkao ardatzaren antolamendua garatzeko.

Aipatutako udal-plan horiek, antolamendu orokorra koordinatu behar dutenek, berariazko zehaztapenak hartuko dituzte barne, esparru zehatzak garatzeko plangintza zehatz prestatzeko adinako xehetasun-mailarekin, ondorengo orientazioei jarraiki:

- a) Beasain-Zumarraga korridorea.

Koordinazio horrek aurretiko baterako agiri bat idaztea gomendatzen du, ahal dela aurrerapenaren mailakoa, eta helburuak honakoak dira: lurzoru-erreserbak definitzea, azpiegitura nagusiak egokitzea eta antolamendu espaziala eta proiektuak garatzea, kalitateko hiri-egitura ezartzeko irizpideetan oinarrituta.

b) Beasain-Ordizia-Lazkao ardatza

Koordinazio horrek aurretiko baterako agiri bat idaztea gomendatzen du, ahal dela aurrerapenaren mailakoa, eta ondokoak definitzea du helburu: lurzoruen birkalifikazio generikoa, tipologia, bide-loturak, pasabide- eta banaketa-egitura, oinarritzko azpiegiturak, ibaien ertzen tratamendua eta, oro har, espazioaren antolamendua, kalitate-irizpideei jarraiki, burutza-hiriaren mailari dagokion bezala.

Murumendi eta Gorostiagako interes naturaleko eremuak antolatzeke oinarritzko lerroak definitzeko helburuarekin, Goierriko eremu funtzionalarekin mugakide diren eremu funtzionaletako (Urola Kosta eta Debagoiena) LZPak LZP honetako zehaztapenekin bat etorritz garatuko dira.

Eremu funtzionalaren antolamenduak ez du kaltetuko kultur ondare higiezinaren babesa eta, horrenbestez, ondare horrek ez du gutxitu behar lurralde-eredua garatzearen ondorioz. Hori dela eta, LZP honek EAEko Kultur Ondare Higiezinaren LAPak barne hartutako erregulazioa egingo du bere eta kasu guztietan Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 17. artikuluan xedatutakoa beteko da.

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak eta lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, bere 92. artikuluan xedatutakoa betetz, Gipuzkoako Foru Aldundiak landuko ditu Beasain-Zumarraga korridorean eta Beasain-Ordizia-Lazkao ardatzean kokatutako udalerrien plangintzen konpatibilizazio-planak.

1.8. PARTE HARTZE PUBLIKOA ETA LANTZE PROZESUA.

4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa, da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamendua garatuko duten tresnak mailaka prestatzeko marko juridikoa.

Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, artean artezpideak behin betiko onartu gabe zeudela, Gipuzkoako Lurralde Historiakoari dagozkion eremu funtzionaletako lurraldearen zatiko planak egiteko lanei ekiteko une egokia zela bat etorritz, lankidetzeta-hitzaumen bat sinatu zuten 1992ko uztailan. Hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako eta

Hirigintzako Departamentuaren eta orduko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren artean egin zen, prozesu hori arautzeko eta sustatzeko, hain zuzen ere.

1992, 1993 eta 1994 urteetan aurretiazko azterketa-lanak, analisia eta diagnostikoa burutu ziren, eta egindako lana aurkezteko bilerak egin ziren eremu funtzionaletan. Aurkezpen-bilera horietara bertaratu ziren pertsonak lan egiteko gogo handia erakutsi zuten eta aurrerapenak lantzeko prozesuan aktiboki parte hartu eta proposamenak gauzatzeko egutegia osatu zuten. Gauzak horrela, Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitektura Departamentuko eta Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko arduradunek argi ikusi zuten udalekin komunikatu, elkarlanean jardun eta hitz egiteko prozesu berriak martxan jartzea komeni zela.

Komunikazio-prozesuko bileren lehen txanda amaitu ondoren, aurrerapenak lantzeko beharrezkotzat jotzen zituzten ekarpenak egiteko aukera eman zitzaien udaletxe guztiei, eta aurrerapenaren idazlari-taldearekin komunikazioa errazteko bideak aztertu eta erabaki ziren.

Bilerak udaletxe, mankomunitate eta garapen-agentziek eskatuta egin ziren askotan. Lurraldearen Zatiko Planen bulegoan bilera bat egin zen eta aldundiko aretoak edo eremu funtzionaletako udalerriak erabili ziren gainerako bilerak egiteko. Azaldutako prozesua amaitzeko, 1995eko apirilean Gipuzkoako lurraldearen planen aurrerapenak aurkeztu ziren, horien artean, Goierriko eremu funtzionalari dagokiona, zehatz esateko.

Aurrerapen hori eremu funtzionaleko udaletxeetara bidali zen, nahiz eta ondoren prozesua eten egin zen LAAk behin betiko onartu arte. Hori 1997an gertatu zen, bi urteko iraupena izan zuen esku hartzeko aldiaren ondoren.

Aurrerapena entregatu eta artezpideak onartu bitartean, udal-plangintzek eta hiri-garapenak beren bidea egin zuten. Gisa horretan, planteatutako proposamenetako batzuk gauzatu egin ziren, beste batzuk sortu eta abar. Bide beretik, neurri batean behintzat, aldatu egin ziren eremu funtzionaleko gizarte- eta ekonomia-egoera eta eremu funtzionalean erabilgarri zegoen espazioa.

Hori dela eta, sail sustatzaileek uste izan zuten lehen urrats gisa, behin betiko agiria idazteko zereginekin jarraitu baino lehen, egokia litzatekeela aipatutako aurrerapen-agiri hori berrikustea

eta eguneratzea. Berrikusteko lan hori irizpide, helburu eta irtenbide orokorren agiri batean islatu zen.

Testuinguru horretan, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Goierriko Eremu funtzionaleko LZParen Aurrerapena lurraldeko administrazio publiko interesdunetara bidali zen entzunaldiaren izapiderako. Bi hilabeteko epea izan zuten beren oharrak, iradokizunak, alternatibak edo proposamenak adierazteko. Horrezaz gain, jendaurrean jarri ziren aurrerapenean barne hartutako irizpide eta irtenbide orokorrak.

Irizpide, Helburu eta Irtenbide Orokorren Agiria, 1997an amaitutakoa, idatzi zenean, lanen zuzendaritzak bere egindako fokatze berria hartu zen barne. Horretarako, **“Oinarri Metodologiko eta Kontzeptualak”** prestatu ziren. Horrek berekin ekarri zuen erakundeen eta gizarte-eragileen, Etor Taldeek ordezkatzeko zituztenen, esku-hartze handiagoa. Metodologiaren ikuspegitik, berriz, errealitateetik hurbilago zeuden analisi-faktoreak hartzen zituen barne, eremu funtzionalen berariazko ezaugarrietan gehiago oinarritutako eta horietara gehiago egokitutako lurralde-eredua lortzeko F

Irizpide, Helburu eta Irtenbide Orokorren Agiriaren beste alderdi esanguratsu bat aurreko aurrerapen-agiriaren inguruan udalek egindako iradokizunak biltzea da. Iradokizun horiez gain, udal guztiekin eta Goierriko gizarte- eta ekonomia-errealitatearekin konprometituta dauden erakunde guztiekin horiek prestatu bitartean izandako harremanen emaitza ere islatu zen bertan.

Irizpide, Helburu eta Irtenbide Orokorren Agiri hori 2000ko uztaillean bidali zen planak eragindako lurraldeko administrazio publiko guztietara. Horiei egoki iritzitako ohar eta proposamenak egiteko eskatu zitzaien.

Kontsultak egiteko epean ondorengoek aurkeztu zituzten idatziak: hamaika udalek (Beasain, Idiazabal, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Segura, Zegama, Zerain eta Zumarragak), Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak, IHOBE S.A.k, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), Sustapen Ministerioko Trenbideen Zuzendaritza Nagusiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzak, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirolak, Nekazaritza eta Ingurugiroa eta Garraioak eta Errepideak departamentuek.

Horren guztiaren argitara, Jarraipen eta Zuzendaritza Batzordeak txosten gisako agiri bat prestatzeko agindu zuen, administrazioak irizpideen inguruko adostasunetara irits zitezen eta behin betiko agiria idazteari ekin ziezaioten.

2001eko martxoaren 20an onartu ziren Irizpide, Helburu eta Soluzio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren aginduz. Horiei jarraiki prestatu behar da Goierriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren behin betiko agiria.

Hasierako onarpenerako aurkezten den agiri hau, hainbat fasetan garatu den aztertzeko eta proposamenak egiteko prozesuaren emaitza izan dena, berriz formulatutako agiri bat dela esan dezakegu, izan ere, aurrerapena bera, Irizpide, Helburu eta Soluzio Orokorraren Agiria eta entzunaldiaren garaian lurraldeko administrazio publikoetatik jasotako ekarriak oinarritzat hartuta prestatu dugu, adostasun handia lortzeko etorkizun hurbilerako Goierriko lurralde-antolamendurako eredua definitzera bideratutako helburu, giltzarri eta ekintza nagusien inguruan.

Goierriko eremu funtzionaleko lurraldearen zatiko planaren agiria Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 2003ko urtarrilaren 14ko bilkuran. Onartu aurretik, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena hartu zen kontuan eta, ondoren, jendaurrean jarri zen informazio guztia eta interesa zuten herri-administrazioei jendaurreko entzunaldia eskatzeko aukera emango zaie.

Aldi horretan agiria ezagutzera emateko bilerak egin ziren eremu funtzionaleko udaletxeekin zein bestelako elkarteekin. Gainera, hainbat administrazioek eta organismok, erakundek eta elkartek egindako kontsultak zuzenean erantzun ziren eta planaren edukiari buruzko zalantzak argitu ziren. Horrela, hainbat alegazio aurkeztu ziren eta 2003ko maiatzean LZA idatzi zuen taldeak alegazioei buruzko txostena idatzi zuen, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta.

Eremu funtzionaleko udaletxeen arteko izaera politikoko eta teknikoko arrazoiek eraginda atzera egin zen LZParen behin-behineko onarpena. Hala ere, arloko eta udal-mailako plangintzak, hiri- eta lege-garapenak bezala, aurrera jarraitu zuten eta lege, plan eta araudi eta abar berriak onartu ziren.

Hori dela eta, sail sustatzaileek erabaki zuten, agiria behin-behinean eta behin betiko onartzeko zereginekin jarraitu aurretik, lehen urratsa lehen aipatutako txostena berrikustea zela, eta, berrikuspenean errealitate funtzional eta lege- edo arau-mailako errealitate berria eta LZPan izan dezakeen eragina kontuan hartuta landutako eta jendaurreko informazioan jarritako agiriak erabiliko ziren erreferentzia gisa.

Plana formulatzeko fasea amaitu ondoren, Mugikortasuna eta Lurralde Antolamendurako diputatuak eskatuta Diputatuen Kontseilua bildu zen **2007ko abenduaren 11n** eta, gaia aztertu ondoren, planaren izapidetzen laguntzeko erabakia hartu zuen, 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak, bere 13. artikuluan adierazitako prozeduraren arabera. Horrela, **Goierriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana onartu da behin-behinean, aurkeztutako alegazioen eta onartutako irizpideen ondoriozko aldaketak barne hartuta.**

Hala ere, plana landu zenetik denbora asko igaro dela kontuan hartuta, baldintza bat jarri zen: EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak dagokion txostena landu aurretik, Planaren Jarraipen eta Zuzendaritza Batzordeak eguneraketak barne hartuko dituen agiri zehatz bat onartuko du eta txosten hori onarpen-akordioaren azalpen-zatian adierazitakoaren arabera landuko da.

Ondoren adierazitako alderdiak izango dira, funtsean, eguneraketaren alderdi garrantzitsuenak:

- Araudi-mailako erreferentziak.
- Plangintzaren egoera.
- Egungo estatistikak.
- Lurralde-antolamendurako azpiegitura garrantzitsuenen gauzatze-maila.
- LZParen eragiketa estrategikoetan eragina duten alderdien bilakaera.
- Lurzoru poluituen arazoak.

Eguneraketa horiez guztiez gain, honako alderdi hauek barne hartuko ditu lan horrek:

- Bizitegitarako lurzoruaren kuantifikazioa, planaren hasierako onespena eman aurretik EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak ezarritako irizpideak kontuan hartuta.
- LZParen udal-plangintzaren baitako afektazioak, indarrean dauden antolamenduen arabera; aldaketak zehaztuko dira.
- Ekonomia eta finantza azterketa eguneratzea.
- Eremu funtzionala dagokion ingurune hurbilean integratzeko baldintzak aztertzea, batez ere bide-sarea egituratzeko baldintzak, eskualdea inguruan dituen eskualdeekin egituratzeko eta integratzeko.

Kontuan hartzen bada erakunde-mailako eragile asko nahasten direla plangintza-sistema berriaren gainerako erabakiak hartzeko (Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak eta udaletxeak), eta LZPetako zehaztapen ugari arloko plan eta programen eta udal-plangintzaren bitartez garatu behar direla, LZP lantzeko erronkarik handiena, zalantzarik gabe, toki-erakundeen aukerak udalaz gainerako lurralde-jarraibideekin bateragarri egitea izan da.